

Disko hau Garaten grabatua izan da 2000. urteko udazkenaren ateetan.

Eta honako hauek parte hartu dugu bertan.

Anari Alberdi: gitarra, ahotsa, pianoa. / Drake: Baxua.

Mikel Abrego: Bateria, sampler eta programaketak. / Xabi Strubell: Gitarrak, kontrabaxua.

(eta gainera...)

James: Zerra melodikoa, Hammond.

Kaki: Gitarrak

Mikel Azpiroz: Hammond.

Pello Ramirez: Txeloak.

Xabi Zeberio: Bibolinak.

Kantari: Ruper Ordonika, Petti, eta Zulu.

Mila esker guziei.

Produkzioa: Kaki Arkarazo eta Anari.

Azala eta diseinua: Mikel eta Eneko Abrego.

Azaleko argazkia: Carlos Villagran. / Bestelako argazkiak: Baxi

habiak	Anari
bihotza galdu dut	Anari
denbora	Anari
geuk piztutako suak	Anari
aztarnak	Anari
zubiak	Anari
aztia	Mi
zukanako bideak	Anari / Jon Maia
amultsu dator iluna	J. Luis Zabala
ekilibristak	Anari
itsas-erauntsiak	Anari

habiak

Negua lo gelditu zaigu oinetan behelainotan, bihotzekin baino ez dugu ikusten, itsututa.

Minak habiak egin dizkigu esku ahurretan eta itsasoak gainezka begietan.

Argirik ez da sartu geroztik leihora, udaberririk ez dute somatzen lorak gurean, txorien zai daramagun arren urtaro osoa, saiak baino ez zaizkigu hurbiltzen lekura.

Bihotza harri bihurtu zaigu, gogortuta, goroldioa dugu lehen azala zen lekuan. Desertua baino ez dut orain ikusten zure begietan eta ibai lehorrak dira gure zainak.

Nahiz eta minak habiak egin dizkigun esku ahurretan, saiak baino hurbiltzen ez bazaizkigu ere leihora, goroldioa dugun arren gorputz osoan, hemen iraungo dugu elkarrekin ilargi berotan zai, zai, zai, ilargi berotan zai.

hitzak: anari

bihotza galdu dut

Bihotza galdu dut, nonbait, zure izera artean
eta ero moduan nabil orain galduta, noraezean.
Bidertzak sagar ta orbelez betetzen hasiak diren egunotan,
udazkena eskutitzak bidaltzen ari balitz bezala.
Zulo haundi bat dut orain hemen, bularraren erdian,
ezerk betetzen ez duen zulo sakon eta iluna,
bertan ehortzi nahi ditudan arren guri buruzko guziak
zure hitzak entzuten ditut oraindik memoriaren irratian.
Eta euria ari du, aspaldi ez bezala,
dena lutuz jantzi az zorigaitzeko bals baten moduan.
Utzidazu berriro galtzen zure izera artean
han bakarrik aurkitu bait dezaket behin han galdu nuena

hitzak: anari

denbora

Ozeanoak pasatzen dituzten arrain bakartiak lez, errari, naufrago gabilta
inbaur oskol baten, haize erauntsien mirabe, norabide gabe.
Ez dakigu zenbat denbora falta den, ez zenbat behar den, nora goazen.
Erlorjuak hautsi genituen eta orain area eskuetan, eskuetatik ihes.
Emaidazu eskua eta oinutsik iragango dugu elkarrekin, denbora,
memoriaren errautsen gainean oinak erreaz, denbora.
Atzoko suen hausterrek oraindik erretzen badute ere segi aurrera, ez
dizut emango galderarik ezidazu eskatu erantzunik, goazen aurrera.
Bihotza emango dizut nik, triku azal batean bildurik,
hautsi ez dadin,
mindu ez dadin,
urra ez dadin, bilduta emango dizut nik.

hitzak: anari

geuk piztutako suak

Neuk piztutako sutan erre naiz berriz,
lehen ibilitako bideetan, oraingo galbideetan, noraezean nabil.
Bide-gurutzera iristean okerreko bidetik,
ilargiari segika batzutan zugana ihesi, bestetan zugandik.

Baina bidea jakin arren, galdu egingo naiz berriz, itsaso berdinetan ito,
eguzki berdinetan erre, behin eta berriz.

Bide ertzeko zoko ilunetan, lo gelditzen naiz sarri,
bazterreko pizti hilekin lo, txakur galduen bidean zure atzetik.

Baina bidea jakin arren,
galdu egingo naiz berriz,
itsaso berdinetan ito,
eguzki berdinetan erre,
behin eta berriz.

Eta geuk piztutako sutan erreko gara berriz,
eta su zaharren ke beltzetan biderik aurkitu ezinik,
ihesi.

hitzak: anari

aztarnak

Desertu erdian bale eskeletu bat da
behin itsasoa han izan zeneko aztarna bakarra.
Mendi altuan karakola bat da,
behin itsasoa han izan zeneko aztarna bakarra.
Etxe osoan usain antzeko bat da,
behin hemen izan zineneko aztarna bakarra.

hitzak: anari

zubiak

Dena utzi eta berriz ihes egin duzu,
eta zuri deika atzean utzi nauzu,
pizti herabeen moduan ari natzaizu,
gauetz kantuan.

Hautsi duzu, eraikitako zubia deuseztatu eta orain harri pilo bat baino
ez dugu, min egiten duten milaka harri dugu elkarri botatzeko.

ERAIKITAKO ZUBIA AMILDEGI EGIN ZAIGU,
ETA ORAIN IBAI ZABAL BATEK BANATZEN GAITU,
ELKARRI BEGIRA BAKOITZA URERTZ BATEAN UTZI GAITU

Eta denboraz, azkenean geu ere harri bihurtu,
ez dugu sinesten eta ezin sentitu,
hitzak sugeak bailiran lotzen zaizkigu eta ezin askatu.

ERAIKITAKO ZUBIA AMILDEGI EGIN ZAIGU,
ETA IBAIA ERDIAN HARRO PASATZEN ZAIGU DENBORA BAILITZAN
DENA ERAMANEZ; DENA EZABATUZ.

DENBORA BAILITZAN ibaia, IBAIA BAILITZAN DENBORA,
DENBORA BAILITZAN IBAIA, IBAIA BAILITZAN DENBORA,
dena, izan dena ezabatuz.

hitzak: anari

aztia

Gaueko ardoak dena agindu arren
esnatzean haren harrresi ahulak ikusi
iburak egiteko mozorrorrik gabe
gezurrak, ametsak, denak ahitu zaizkit.

Pertsonai guziak euren rolaz akiturik
inork ez du nahi aurrea hartzerik
marinel matxinaturiko itsasontzi batean
norabide gabeko kapitaina naiz ni.
Itsasorik gabeko marinela naiz ni.

hitzak: Mi

zuganako bideak

Hiria lokartu da ilunabarraren eskilaretan,
haize boladak abailtzen eta hostoak joka gure atean.
Zuhaitzik ez dagoen arren gure amets izoztuetan,
hostoak ateratzen eta joka darraite gure atean.

Kale zabalen bakardadea neurtzen da aulki hutsetan
eta ihes atera zen jendea esertzen da orain bertan.
Udazken hilezkor honen hosto infinitoen pean
ezabatzen zaizkit niri zuganako bideak.

hitzak: Jon Maia, anari

amultsu dator iluna

Amultsu dator iluna,
urrundik ingurura,
ingurutik azalera, azaletik barrura
muin-muineko zokondorik gordeanetan,
zalantzaren argi-leuna zabaltzera.

hitzak: J. Luis Zabala

ekilibristak

Leihotik sartu zaigu eguzkia lapur bat ballitzan
eta eskuetan urtu dizkigu ametsak eta atzo izotz zati haundi bat zena
gaur ur hutsa da behatz minduetan behera, eta ezin eutsi, berriz etsi.

Atzean zubi denak erre eta ihesi goaz
oinak hautsitako zaldi baten gainean,
bi ilargidun gau hori ea non agertuko zai
egunsentiak harrapatzen gaitu beti, ihesi.

Eskuak amets haziz bete eta hondar antzutan ereingo ditugu
amets berriak, eta uzta noiz jasoko zai zerura begira egongo
baina zero ilunak amenazu beti.

Eta zer gara, botila hutsak baino, zer gara, ekilibristak baino,
bi bihotzen arteko soka hauskor horretan errari dabiltzan
ekilibristak baino.

hitzak: J. Luis Zabala

itsas-erauntsiak

Gehien beldurtzen nauen itsaso iluna zuk barruan daramazuna eta
harrotzen deneko ataka gogorretan begiak betetzen dizkizuna.

Eta arrotzen deneko ataka gaiztoetan
malko gaziz gainezka egiten duena.

hitzak: anari

Jon Maia, Jomes, Baxi, Petti, Ruper, Zulu, Imanol Ubeda, Rosa,
Izaskun, Inge, Aritz, Mentxu, Pipi, Akauzate (zorretan),
eta Esan Ozenkiri, eskerrik asko !

Besarkada bat ama, Ionbu, Mikel eta lagun guztiei.

Kantuak egiterako orduan hainbat idazleei lapurtu dizkiet hitzak
baino gehienbat Joseba Sarrionandiari, mila esker,
behar ditugunak idazteagatik

IF YOU WANT TO GET LYRICS TRANSLATIONS CONTACT.
SI VOUS SOUHAITEZ LA TRADUCTION EN FRANÇAIS DES PAROLES, VEUILLÉZ CONTACTER.
SI QUIERES CONSEGUIR LAS TRADUCCIONES DE LOS TEXTOS, CONTACTA CON NOSOTROS.

- ESAN OZENKI RECORDS. Eguzkitza 13. 20304 Irun / www.esan-ozenki.com
- ANARI. Matadero Ekintza. 51 postakubra. 20720 Azkottia

MANAGEMENT: Unai Tel: 94 496 35 75 • Fax: 94 495 11 61 e-mail: radiation@sarenet.es